

Memoria Historikoa berreskuratzen bederatzzi urte

Aurtengo udan ezin izan da nazinoarteko auzolandegirik egin Lemoatxeko defentsa-konplejuan, baina Udalak ez dau gura izan Memoria Historikoaren gaineko lan bako uda izatea. Holan, oin arte egindako lanak batu ditu PDF baten eta herritarri zabaldu deusez. Aranzadi Zientzia Elkarteko nazinoarteko Auzolandegiez gainera, monografiak, disko eta bideoak, errekreatzioak eta beste ekintza asko egin ditue urteotan, aztertu eta topautakoaren barri herritarri emoteko. **13. orrialdea**



Amaia Alday txapeldunorde Plazandreak udako txapelketan

10. orrialdea

Perez-Pons idazleari alkarrizketea

Blas de Otero sariaren parte da liburu irabazle argitaratzea eta kalean da Eva Perez-Pons lemoztarraren *Zaharkitze programatua* liburua, 2019ko edizioa irabazi ebana. Hori dala eta, BEGITU beragaz egon da, liburuaren eta egilearen barri jakiteko.

Zaugarratasuna da poema liburuaren gai nagusia, desioa eta aldarrikapenak be tarrea izan arren. Patriarkadua, kapitalismoa eta derrigorrezko heterosexualidadearen kontrako poesia da *Zaharkitze programatua*. Izan be, Monique Wittig-ek edo Adrienne Rich-ek legez, modu poetikoan kontetan deusku zelango eragina daukan gorputzean eta buruan, indarrean dagoan sexu-genero sistemeak.


Idazten jarraituten dauala dino, momentuz, argitaratzeko asmorik ez izan arren. **12. orrialdea**



Bihotz Gorospe

Bere Youtube-ko kanalean, berak sortutako musika dabil argitaratzen Bihotz Gorospe, *Bihotz anpuluak* izenburupean. Kantuon berak batzuetan berak sortutakoak dira eta beste batzuetan, poeta lagunena. Bilduma honetan Youtube-ra igondako lehenengo biak, barbarako, Gorospek musikatutako Rafa Ugaldere poema bi dira.

Musikan egin dauan oin arteko ibilbide oparoa eta bere proiektuen barri kontau deusku alkarrizketan. Sormen handiko momentuan dago musikaria eta bere bihotzaren anpuluak konpartiduko ditu denpora tarte baten. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

Herri eta auzuneetako atzenengo jaiak be bertan behera

Autoridadeen agindu eta gomendioai jarraituz, COVID-19 gaitzaren hedapena handitzen ez jarraitzeko asmoz, herri eta auzuneetako jai batzordeak, jaiak bertan behera ixtea ebatzi dabe. Gainera, atzen egunotako bilakaerea ikusita, ekintza kulturalik be ez dabe antolatuko udalak eta herritarri jente pilaketak saihestu eta arduraz jokatzeko deia egin deusez.

Jairik bako uda honetan, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), jaiak gai dituan gazteai zuzendutako eskape room birtuala dauka martxan hilaren 12ra arte. **5. orrialdea**

DIMA

Udagoienerako hainbat ekitaldi prestatu ditu Andraizeak

Urri lehenengoaren 19tik abendura arte, feminismoagaz lotutako hainbat ekintza antolatu dauz Dimako Andraizea andra alkarteak. Lehenengo, Bixenta Moguel idazlearen ingurukoa, Dimakoentzat bakarrik izango da, baina beste ekintzetan, edozein andrak hartu ahal dau parte. **7. orrialdea**

BIXENTA MOGUELEN
aztarnetatik

Irailak 19en
Dimetik Markinerq

- 9:00tan autobus Dimeko plazatik
- 10:30tan Yolanda Arrietagaz solasaldie
- 11:00tan eskadutxoa
- 12:30tan Ubagon kulturgunekoan eskurik bita gidatze beritrik
- Bazkarie Tekeition

- Prezioa: 30€ (bazkideak) / 45€ (Bazkide ez direnak)
- Izena emoteko epea: Irailak 13
Emailaz andraizea@gmail.com edo
Whatsapez 653750837 (Kikkitza)

ARRATIA

Eskolara buelta osasun neurriakaz

Abuztuaren 28an emon ebezan jakitera Cristina Uriarte Hezkuntzako Sailburuak eskolara itzulerarako neurriak. Hezkuntza presentziala izango da eta, 6 urtetik gorako umeak maskarea eroan behar izango dabe, besteak beste. Hamar egun lehenago, Jauriritzak beste neurri batzuk hartu ebezan, zahar etxeetan urtekerak eta bisitak murrizten ebezanak tartean. **6. orrialdea**

E P A
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea,
bagila.

Tfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2, liburutegia (Lemoa)

Literatura txokoa

CLAUDE ETA MORINO 1. MADARIKAZIOA

Claude eta Morino lagun bi dira. Hobe esan, oin dira lagunak, izan be nahiko modu arraroan aurkitu ziran.

Bata, Morino, zezen gazte bat da, hondartzazalea, karabana bat dauka, bizitza letra larriz bizi gura dauan zekortxo bat. Bestea, Claude, lozorro ederrean egoan, baina halango baten Morinoren txizak itzartu egin dau. Izan be Claude, hilotz bat da, eskeleto bat, lurpean egoana, trankil, trankil, eta Morinoren txizak itogina egin dau lurpean beraganaino heldu arte.

Itzartzerakoan, derigorra dau azalpenak eskatzea eta aspaldiko lozorrotik nork atera dauan jakitea. Zezenak ez dau polito hartuko hasikeran; izan be, ma-

darikazinoa dakar Claudek, "eskeletoa iratzarri ezker, haren ondoan bizi behar gero". Gainera oso bildurtia da gure eskeletoa, hazurrak jausi, galdu eta apurtu leikioz eta. Batak besteakandik alde egin ezker, lehertu egingo dira Claude eta Morino. Eta horrek arduratu baino, bizipozez beteten dauz, holan naturea, haizea, hondartza, ezetuko dabe, adisidantzaren zutzarrak sendotuko dabez, eta batez be, ikasiko dabe egia eta guzurraren arteko haria meharra bada be, barkatzeak eta zintzotasunak badakarzala mese de ugari. Zorionez, egunez egun, joango dira biak batera euren bildurrak alde batera ixten eta abentura bila abiatuko dira, lagun barriak egin be, eta baragarria zan

udari urtenbidea topau be bai.

Sarri heriotzeari buruzko kontakizunak gatzak jakuz, eta ez, ez da erraza 72 orritan Adrien Albertek lortu dauana lortutea (Bego Montorioren itzulpena): personaje txiki bi, bizizalea bata, bildurtia eta hila dagoena bestea, alkar hartu eta komiki eder baten batu, gozamen hutsean.

Aitatutekoa be bada Astiberri argitaletxeak daroan ahalegina aspaldion, euskeratu eta goi mailako lanak geureganatuten. Eta, mmm, uda amaituten doan honetan uda kontu ederrak jatorkez komiki honetan, seguru bere horretan ez dirana geratuko, laster baten dakiguna Claude eta Morinoren barri.

@fantomastxiki



Adrien Albert

Itzultzailea: Bego Montorio

Claude eta Morino 1. Madarikazioa

Astiberri Ediciones, 2020

72 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abuztuaren 31tik urri lehen. 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 7tik 13ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 14tik 20ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

Homeschooling Arratitak kanpo edo Madrilen be txakurrak oinutsik

Aleman irakaslea naz, Hizkuntza Eskola Ofizial baten. Gitienez ezaugarri bik bereizten dau nire irakasmila gure herrietako derrigorrezko eskolaldiko irakaskuntzatik. Nire ikasle gehienak adinez nagusiak dira eta borondatez etorten dira gehienak. Hona hemen nire eskola-ixialdian izandako esperientzia personala.

Martiaren erdikaldean zarratu eben nire eskolea koronabirusaren ondorioz. Hilabete luze biz saiatu nintzan ikasleai klase ez-presentzialen bidez alemana irakasten. Nire kasuan, emailak, bloga, Skype bidezko bideokonferentziak eta Moodle plataformea erabili nebazan. Bagileko azterketea heldu zanean, espero nebana baino emaitza txarragoak aurkitu nintzan. Malkoak lehortu ondoren, hausnartzeko ordua heldu jatala ebatzi neban. Nire gogoetearen emaitzak hiru puntu honeetan aurkeztu gura neukez: azpiegitura digitala, bakarka ikasteko ikasleen gaitasun eta motibazioa, eta ikasketaren emaitzak sozializetako prozesua.

1. Azpiegitura digitala

Azpiegitura digitala baloretako maila bi dagoz. Lehena, jakina, interneten bidez eskuratu daiteken informazioa eta, bigarrena, azpiegitura horren erabilera. Koronabirusa pandemia danez horrek gure egoera beste eskualde batzuetakoagaz alderatzeko aukerea emoten deusku. Kasuan gure eskolen aldi baterako itxierak eragindako Homeschooling-a Alemania, Suitza eta Austriako zentroakaz konparau gurako neuke.

Apirilaren erdikaldean, Zug (Suitza) herriko unibersidadeak eskola barometroa argitaratu eban. Horretarako 7.000 irakasle alkarrizketatu ebazan. Barometroaren lehen ondorioa Madrilen be txakurrak oinutsik legez itzuli daiteke, hiru herrialde horretan urruneko ikaskuntza ahalbidetzeko erabilitako bitarteko digitalak honako honeek ziralako: emaila (%66), jarraian telefono mobikorra, eskolako web orria eta, azkenik, Moodle lango plataformak.

Bigarren ondorioak be ez gaitu harritzen: irakasle asko ezin izan ziran euren ikasleakaz harremanetan ipini eskolea zarratuta egoan bitartean. Adibidez, irakasleen %14k ziurtatu eben ikasleen %10egaz ezin izan ebela harremanetan ipini itxialdi osoan. Komunikabideetan Alemaniako eskoletako euskarri digitalaren egoera "eskasa" eta herrialde honetako irakasleen jarkera diskretua bezala deskribatuak izan dira. (Berliner Zeitung, 2020/05/15)

Schul-Barometer-ak argi itxi dau



JÜRGEN LANGE

Irakaslea

Europako hainbat herrialdetan azpiegitura digitalari jagokonez alde handiak dagozala. Alemania inbertiduten dabil desbardintasun tekniko horreek murrizteko. Han eta hemen azpiegitura digitala azkarra lortu ezker horri etekina aterateko bigarren baldintza da irakasleen eta ikasleen gaitasun digitala. Ze aurretik aitortu behar dot, irakasleok ez gengozala klase ez-presentzialak emoteko prestatuta. Zoritzarrez, ikasle ugariaren kasua ez da hain desbardina izan. Aztertu daiguzan kasu batzuk.

Ikasle erretiraturen batek itxialdian lehen egunean itxi ditu klaseak bertan behera, teknologia barriakaz itota aurkitu dualako bere burua. Ez da hori ikasle gazte gehienek kasua, era guztietako aplikazioak erabilten ditue-eta. Hareen hutsegiteak edo porrotak beste errazoi bat izan ebalakoan nago. Gurasoak izaten dira gazte asko derrigorrezko eskolaz gain, beste hizkuntza bat ikastera "motibetan" dituenak. Holango kasuen ehuneko ehunak baja emon eban klase ez-presentzialak hasi bezain laster.

Huts egiten hasi zan hurrengo taldea hizkuntza ikasten hasi barriak ziran, A1 mailakoak bost hilabete inguru eroiezan alemana ikasten itxialdia hasi aurretik, hau da sano gitxi bakarka lan egiteko edota Skype bidezko berbaldia alemanez eroateko. Holan, testuliburua jarraitzeko argibideak eta euren mailarako egokiak ziran audioai eta bideoai lotutako ariketak bidali neutsezan. Edozelan be, bakarka etxean ikasten eabilzen bitartean ez eben ahozko edo idatzizko testuak ulertzeko unean agertzen jakiezan zalantzak berehala argitzeko aukerarik, klasean egiten genduan moduan. Oso egoera eroangaitza egin jakien, eta horrek atoaan blokeau eban ikaskuntza-prozesua. Ikaslearen nortasunaren arabera, apurka-apurka alemana ikasteari itxi eutsien.

Geratzen jatazan ikasle gehienak maila altuenekoak ziran, eta, gainera, profesionalki aktiboak. Bigarren baldintza horrek, oso sentikor bihurtu zituan koronabirusaren gaigaz, horreetako batzuk, bat-batean, ABEEen (Aldi Baterako Enplegu-Erregulazino espedienteetan, ERTEan) aurkitu ziralako. Hau da, behingoan, denpora gehiago eukien alemana ikasteko; horren adibide da ikasle batek inoz nik zuzentzeko entregautako idazlan kopuruaren errekorra gainditu dauala. ABEEko beste ikasle batzuek, ostera, bere

lan-egoera barrian, alemaneko eskoletarako denpora gitxiago eukien; izan be, behin eta barriz esaten eben moduan, oin ABEEen aurretik baino ordu gehiago emoten ebezan lanean. Irakaskuntzan egin dodan hogeta hamar urteko ibilbidean inoz ez dot ikusi nire klaseak holan murrizten.

2. Bakarka ikasteko ikasleen gaitasuna eta motibazioa

Danok gogoratzen dogu sasoi baten ingeleseko hiztegia ikasteko hartzean genduzan buruhaustek. A zer rolloa! Bada, gaur egun ez da hain diferentea. Kasuan, testuliburuaren jarraipena nahitaezkoa izan arren, ez zan oso motibagarria urruneko klaseetarako. Geratzen jatazan ikasle apurak galdu gura ez banituan, irakasle gisa nire burua barriz asmatu behar neban. Holan, "Asteko abestiaren" bidez (mp3 formatuko audioa eta emailaz bidalitako letrearen transkripzioa) ikasle batzuek lortu eben aleman hizkuntzan murgilduta jarraitzea, eskola-ordutegitik harago. "Asteko filma" online ikusten genduan Alemaniako telebista publikoko medioteketan, eta astebete geroago bideokonferentzia baten komentetan genduan. Homeschooling-eko unerik dibertigarrienak izan ziran horreek. Irakurketan ikasleen gustua hain diferentea izanez, ebatzi genduan ikasle bakotzak eskolako liburutegi digitaletik ale bat eskatu eta irakurriko ebal, eta amaitu ondoren ikaskideai aurkeztuko eutsela.

Honainoko esperientziak erakutsi deusta daborduko gogoia daukanari laguntzea eta motibetea posiblea dala. Edozelan be, ikasleria osoari argi azaldu behar deusagu norbere kabuz ikastea ezinbestekoa dala hizkuntza komunikazino gaitasunean aurrera egiteko bai ohiko klaseak dagozanean eta bai ez-presentzialetan be.

3. Ikasketaren emaitzak sozializetako prozesua

Hinkuntza ikasteak nahitaezkoa dau erabilera funtzionala. Bestela esanda, besteakazko alkarrizketa edo komunikazino, ahozkoa edo idatzia, beharrezkoa da. Ikusi dot bideokonferentziak eta testu idatzien trukeak oso ondo funtzionau ebela, batez be goiko mailetan, baina baita maila guztietako ikasleakaz be, beti be hizpide ziran gaien artean aniztasuna egoanetan. Gure eskolan badogu mintzapraktika laguntzailea. Bion artean datorren kursoko alkarrizketa klaseak antolatuko doguz. Eta biok saiatuko gara formatu barriak aurkitzen Skype programaz baliatuz. Baina hau beste kontu bat da eta hurrengo eretxi artikulua baten komentauko deusuet.

Hausnarketa honetatik hiru ondorio atera dodaz. Lehena ezinbestekoa dala baliabide eta gaitasun digitalen lanketea; bigarrena kanpoko motibazioaz gainera funtsezkoa dala norberaren gogoia oztopoak gaindituz bakarka ikasteko, eta azkena, hizkuntza komunikazinoan aurrera egiteko hizkuntza erabili egin behar dala, ahoz eta idatziz, besteakaz komuniketako.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Barauskarri



Gure tradizinoako ohitura baten berbea dakargu: barauskarri (baráuskarie, ahoskatuta). Goizeko baraua hausteko hartzean diran janari-edariakaz lotuta dago (gaztelaniaz, des+ayuno; ingelesez, breakfast). Goizean etxean hartzean zan anis kopatxoak gailetakaz; edo ezkontzen zan eguneko goizean, nobiak auzoko etxe baten eskaintzen eban pamitxea anisetan untuta. Ermitetako jaieguneko gosaria (ardoa eta pastak edo pamitxea eta urdaia) be bada, eta urtean tokatzen dan maiordomoaren kargupean ateraten jako mezaostean dagoan jenteari.

LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Iragana eta etorkizuna

Etxean egoteko denporea daukagun sasoiari bizi garala eta, konturatu bari ahiztutako gauzak hasi jakuz agertuten etxeko armairuetan. Nire kasuan, behintzat, motxila eta bestelakoan azpian beti egon dan kutxa batek "aspaldiko" esan deusta. Gauzea da barruan topautakoak iraganetik etorkizuna pentsetara eroan naua.

Iragana dinot ze bertan VHS zintak topau dodaz. Gurasoai galdetzea dauka ez dakianak zer diran siglok. Zinta horreek desagertutako multzo handiago baten parte dira, etxek aldatutean zaborretara joandako bilduma baten destilaziotik aukeratutako fiimen top-zerrenda personala.

Zintok errepasetan nabilela, Bernardo Bertolucci zine zuzendariagaz akordau naz: harek behin esan eban lez, gaur egun gero eta film gehiago egiten dira, baina gero eta zinema gutxiago. Aipua nahierara hartuta, zinemaren esentziari buruzko

interpretazio propioan oinarritutako ehunka zinta bildu nebazan gaztetan, telebistatik grabata, kopiatuta zein erosita, eta sarritan ibiltzen nintzan lanok berrikusten, bai osorik, bai sekuentzia zehatzak aukeratuta.

Orduan ez neban pentsetan hainbeste momentu on pasuarazo eustezan materialak ez leukela ezertarako balioko gaur egun; izan be, ezinezkoa jata oin bertan zintok erreproduzidutea. Ezintasun horregaitik edo, segiduan joan jata begiradea ordenagailu ondoan daukadan pen-drive parera: bata gorria da; urdin-zuria, bestea; badakit be beste lau-bost daukadazala horko kutxaren baten. Saiatu naz irudikatzen bertan pilotuta dagoan eduki interesgarria, baina batez be ikusi dot zein mengela izango dan hori guztiori hemetik gitxira.

Eta etorkizuna irudikatzen hasteak nire herentzia prestetan hastera be animau nau. Halan, astia behintzat badaukagula eta, hurrengo egunotan nire ondorengoentzako mezu bat preste-tea otu jata: "MP4" formatuko bideo bat grabauko dot azaldutako nire herentziaren zerak lurpeko kutxa baten gordeko dodazala; bideoan bertan azalduko dot be lekuaren "GPS" koordenaden barri emoteko "PDF" dokumentua "PEN-DRIVE" baten gordeko dodala "zipeatuta". Halan, hemetik hiru-lau hamarkadara datuarkeologia egin beharko dau, eta komatxo arteko berba horreen esanahia ikertu, nire diru-apurrak lortu gura dauzanak.

ZERTZEAN



AMAIUR ATXA ZUBERO

Gaia jarrita: "Ikasgeletara buelta"

1

Uda amaitu barri kanbio larriek ta ezin jakin diren mesedegarriek dana ondo joan daiten jarraituz neurriek kurtsu barrie eta ohitura barriek.

2

Aurrera egiteko dagoz hainbat bide dagozen arau danak gogoan eukinde musukoa ta gela beharrezko dire klasekide barrie COVID-a izinde.

3

Ezin pentsatu geinke epe laburrean eduki beharkoguz jada hankak lurtean egoerea arraro sentitu beharrean normaltasune topeu pantaila aurrean.

4

Fase hau izin arren luzea, astune argi bilakatzeke dauen giro ilune alde batera utziz nor dan errudune oin garrantzitsuenan da elkartasune.

5

Itxaropenez eutsi ta ondo babestu baina danan ganetik bizi ta amestu oin ezin dogu itxi nahiz ta ibili estu gure etorkizune birus baten esku.

6

Erraza ez dan arren ein beharko lanak erantzukizun danak direnez danonak atara beharko doguz hausnartze sakonak garai latzenetatik oroitzen onak.

BEGI TXINDORRA

Nuria Korta Aldapek bialdu deusku Landetako Vieux Boucau-ateratako arrasti gorri honen argazkia, eta bertan, euskeraz gorria berbeak dituan konnotazio txarrai kontra egiten deusden paraje baketsu eta ederra erakusten deusku. Gorriak ikustea ez dalako antza, beti, txarra (geure buruan kortozirkuitua sortu arren).

Nuriak egin dauan moduan, udako momenturik ederrenak begituko irakurleakaz konpartidu eta sari eder bat eroateko aukerea izan gura badozu, bialdu zure argazkiak beginu@topagunea.com helbidera urri lehenengoaren 25a baino lehen.

Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbate 101
R.P.S. 31/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexaola, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 506 554 018

Lehendakari Agorri 22
ETROITZ
Agortzen gurek osatzen.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Atzen jaiak be bertan behera geratu dira

Erredakzinoa

Zeanurin jairik ospatu ez zan arren, hainbat ekitaldi egon ziran abuztuaren 13tik 16ra. Izan be, 14an, maskarak jantzita, Korrontzi folk taldearen ikuskizunagaz gozatuteko aukerea izan eben frontoira hurreratu ziranak eta, besteak beste, egun bi beranduago pelota partiduak egon ziran. Joko Alaik antolatu eban txapelketa bat, Gorbeiape I. Txapelketa hain zuzen be. Andramarietako fetxetan finalurrekoak jokatu ziran eta hurrengo astegoienean, finalak. Enbeita eta Bernaolak irabazi eben Gazte mailako txapela eta Larrazabal eta Erkiaga I.ak Nagusi mailakoa. Frontoia beteta egon zan. Zeanuri Loran 2020 lehiaketaren epaia be emon zan, normalean herriko jaiak ospatuten diran egun horreetan.

Areatza eta Zeberioko herriko jaiak be bertan behera geratu ziran. Areatzako Jai Batzordeak jaiak bertan behera ixtea ebatzi eban, "herritar guztion osasuna-

ren mesedetan" eta ez eban ohiko programaziorik antolatu. Udagoienean datorren urteko jaiak prestatzeari ekingo deusala be emon eban jakitera. Jaiak bertan behara geratu ziran barri emoteko, *Gorde indarrak eta datorren urtean ikusiko gara* izeneko bideoa zabaldu eban Udalak.

Gauza bera gertatu zan auzuneetako jaiakaz. Bedian, San Lorentzo eta san Roke jaiak ospatzekoak ziran Murtatzen eta San Roke ermitan, hurrengo hurrengo, baina COVID-19aren egoerea ikusita, aurreikusita egozan ekitaldiak bertan behera geratu ziran.

Urri lehenengoko jaiak be bertan behera

Urri lehenengoan izaten dira gurean atzenengoetako jaiak herrietan. Zeberioko jaietako aurreko urteetako egitaraua, abuztuaren amaieran hasi eta urri lehenengoaren lehen egunetan amaituten zan. Arteako jaiak barriz urri lehenengoko andramariak dira, hilaren 8aren inguruan. Herri bie-

tan bertan behera itxi dabez jaiok. Auzuneetan be, jai-ekitaldiak bertan behera geratu dira, nahiz eta leku batzuetan, Oban berbarako, mezak mantenidu.

Escape room online

Jaien faltea apur bat arindu guran, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) garagarrilean hasita eta urri lehenengoaren 12ra arte, escape room online bat ipini dau martxan; Denporan zeharreko 1. Bidaia izeneko, hain zuzen be. "Aurten jai herrikoiak ospatu ez diranez, jaien gaia ildo legez hartuta, denporan zeharreko biaje bat planteau dogu. Kasu honetan denpora lerro paralelo horretatik ateratea da helburua" azaldu deutso BEGITURI Jone Zalduegi escape room-a egin dauan Emoki enpresakoak.

Partaidetzeari jagokonean, oin arte jente nahikok parte hartu dauala dino Zalduegik, baina oin-dino parte hartzeako egunak geratzen dirala eta aukerea aprobeztetako animau gura ditu gazteak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urrietan errepikatuko dira Gorbeia inguruko txangoak



Olabarrietako Santo Tomas eleizako eleizpeko lurra.

Erredakzinoa

Hartu amasa Gorbeian kanpainaren barruan, Gorbeia Turismo Jomugak uda osorako hamar ibilaldi gidatu antolatu ditu Gorbeia inguruetan. Zeanuriko Undurraga urtegiari itzulita eta Zeberioko Ermitabarriko ibilaldia dira euretako bi.

Urtekerak, hiru edo lau bider errepikatuten dira, garagarrietik hasita. Hori dala-eta, urri lehenengoaren 25ean eta urri bigarrenaren 26an, Zeanuriko Undurraga urtegiari itzulita dagoz programauta. Zeberioko Ermita-

barritik ibilaldiak barriz, urri lehenengoaren 12an eta urri bigarrenaren 10ean dira egitekoak.

Kanpainak uda, "Euskadi modu sakonagoan eta ez hain ohikoan ezetuteko urte sasoi ezin hobea dala azpimarratzen dau, eta Gorbeiak mota guztietako mendizaleentzako ibilbideak eskaintzen ditu, historia, natura, artea, gastronomia, kondairak eta kulturea buztartzen dituan xarma daukien ibilbideak, hain zuzen be".

Zeanuri eta Zeberioko ibilaldiak

Undurragako urtegia inguratzen

dauan ibilbidea lasaia da eta ego-gia familian egiteko. Izan be, 6,5 kilometrokoa da, ordu pare baten egiten dana. Partaideak inguruko errotak eta urtegiaren erabilerearen barri izaten dabe. Amaitutakoan, pintxo-potea Txoko Sagarnan egiten da. Garagarriaren 28an eta abuztuaren 22an be egon zan ibilbide hau egiteko aukerea.

Zeberiokoa, ondarea bisitetan dauan kilometro inguruko ibilbide laburra da. Olabarrietako Santo Tomas eleiza da Ermitabarriko altxorretako bat. "Ermitabarri, aginte politikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren gune bilakatu zan Behe Erdi Arotik eta Aro Moderno osoan zehar, fedea eta tradizioa oinarri eukazan heziketa sisteman oinarrituta. Eta inguruan eregitako ondarea fede hori gauzatzeko propaganda tresna eraginkorra zan". Ondorengo pintxo potea Taberna Zaharrean egiten da. Garagarriaren 19an eta abuztuaren 8an be egin zan txango hau.

Beste ibilbideak

Hartu amasa Gorbeian kanpainako beste 8 ibilbideak hurrengoak dira: Otxandioko pagadiak; Orozko, Mariren eskutik; Urbina talaia; Ibilbidea Urrunagako ertzetik; Gujuliko ur-jauzia; Arrato mendi-lerroa Letonatik; Urrezko Harriak Bitorianotik eta Zubiaurretik Izartzako pagadira.

ARRATIA

Batirtze Barrero izango da AUMko Bardintasun Teknikari barria

Erredakzinoa

Abuztuaren 7an izan zan Oihane Zulet Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikariaren atzen lan eguna Arratian, eta Batirtze Barrero Arkaiak hartu eban lekukoa abuztuaren 24an. Barrero bilbotarra da eta aurretik Zaldibar eta Gernikan egin dau behar Bardintasun Teknikari lanetan.

Batirtze Barrerok Oihane Zuletek egindako lanari jarraipena emongo deusala azaldu deutso BEGITURI. Ilgoran Arratiako Jabe-kuntza Eskolako 2020-2021 ikasurteko programazinoa zarratu

eta urri lehenengoan aurkeztuko dala dino. "Oihane erdi amaituta itxi dau eta ni nabil hori amaitzen. Asmoa da urri bigarrenaren ikastaroak hasia eta urtean zehar jarraitutea lan guztiagaz". Barrerok ikastaroak "normal" era presentzian egitea espero dau, baina COVID-19a dala eta dana dago kolokan. Momentuko egoerara egokituko dira ikastarook osasun neurriak beteteko.

AUMeko Bardintasun Teknikari-gaz kontaktuan ipinteko oin artekoak manteniduten dira; hau da, telefonoa, WhatsApp eta helbide elektronikoko berberak erabili daitezke kontaktetako.



AREATZA

Berrogei mila euro inguruko galerak ugerlekuen kudeaketan

Erredakzinoa

Aurten ugerlekuen kanpainea abuztuaren 24an amaitu da; inoz baino goizago COVID-19a dala-eta. Aforo murriztua egon da jente pilaketak saihesteko eta 200 abono inguru saldu dira, igaz baino askoz gutxiago. Alkatearen arabera, Areatzako Udarentzat 40.000 euro inguruko galerak ekarri dauz ugerlekuen kudeaketan. Ha-ta guzti be, "oso gustura egon da jentea, oso jente gutxi egon dalako".

Osasun segurtasun neurriak beteta, jenteak leku gehiago euki dau "lasai eta gustura" egoteko. Garagarrilean, goizez ala arrastiz joateko hartu behar zan txandea, baina abuztuaren goizez eta arrastiz



joateko aukerea egon zan. "Abuztuaren ikusi genduan 190 bat abono egon zira, eta goizez eta arrastiz joateko aukerea zabaldu genduan. Ez da egon ez elango arazorik. Udalak zirkulu batzuk marraztu ditu zelaian familia bakotzak bere lekua eukiteko" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak.

AREATZA

Kaminoa zuztarrakaz altxetan dabezan platanoak kenduko ditu Udalak



Karpoko pasealekua.

Erredakzinoa

Karpon hainbat platano kendu ditu Areatzako Udalak. Uraren

Euskal Agentziagaz sinatutako lankidetzarako protokoloaren jardueretako bat izan da, "ubideak mantentzen eta lehengoratzeara"

helburuagaz.

Maiatzean sinatutako lankidetzarako protokolo honek lau eskuhar-tze aurreikusten ditu: udalerriko hainbat puntutako zugatzen egoera berrikustea; Iturrimor-roko Uparan errekearen ezker-aldea berreskuratzea; Irupagoko atxikitzaile solidoa eta landaketak mantentzea.

Maiatzerako egoan aurreikusita zugatzen egoeraren berrikustea baina konfinamentuak eta COVID-19ari aurre egiteko hartutako beste neurriak dirala eta, abuztuan egin da hori. "Euki dogu arazo bat platanoakaz, Karpoko paseoa altxetan dabiz zuztarrakaz eta horregaitik kendu dira" sei edo zazpi platano Asier Garcia Areatzako alkateak BEGITURI adierazotakoaren arabera. N-240 kamino generalean dagozan pla-

tanoak be altxetan dabezala kamino dino eta horreek be kenduko dirala. Uparango errekearen be, "zugatzen mozketak bat egiteko baimena daukagu, erramak paseora urtetan dabizelako".

Irupagon dagoan solidoen kudeaketarako kamioien sarbidea martiarako egoan programata; abuzturako, landaketen mantentmentua, eta urrietarako Iturrimor-roko Uparan errekearen ezker-aldea berreskuratzea.

Arkotxan sasiak kendu

Arkotxan garbiketa bat egiteko baimena be badauka Udalak. "Arkotxa da guretzat Areatzan dagoan erreka punturik politena. Bolivar Fundazioan dagoan ur-jauzitxo da. Hor sasiak kentzeako baimena be lortu dogu. Helburua da garbiketa bat egitea ze dagoz sasiak, asunak... baina beti ikutu barik hemen dagoan faunarentzat kerizpea eta lortuteko elementu naturalak" dino alkateak.

ARRATIA

Hilaren 2an zabalduko da 2020-2021 ikasturterako izen emotea Kubulu Euskaltegian

Erredakzinoa

Klaseak presentzialak izango dira la aurreikusten dabela, egoereak posible egiten badau, azaldu deutso BEGITURI Arratiako AEK-ko irakasle batek. Maila guztietako ikastaroak eta ordutegi zabalak izatea aurreikusten dabe. Izen emotea urri lehenengoaren 2an zabalduko da, eta Kubulu Euskaltegian bertan egin daiteke, telefonoz 94 631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetan eta arratia@aekeus.com helbide elektronikoa.

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.
Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zentrotik urten barik eta bisitak murriztuta barriro zahar etxeetan

Erredakzinoa

Abuztuan, kutsatuen gorakada handia izan dala eta koronabirusaren hedapena gelditzeko asmoz, Eusko Jaurilaritza bizitza soziala gehiago murrizten dituan neurriak hartzean dabil. Abuztuaren 18tik, gehienez hamar lagun batu daitezke kalean, tabernan zein aisialdi edo-eta naturako jardueretan, eta goizaldeko aisialdia galazota dago, berbarako. Baita kalean erretea be personen artean gitxienez metro biko distantzia gordetzerik ez badago. Distantzia gorde ezker, erretea baimenduta dago baina maskareagaz: kea arnastu eta botateko bakarrik kendu daitezke maskarea.

Gorakada hori be gertatu da Arratian. Hori dala-eta, Areatzako Udalak ugerlekuak abuztuaren 24an zarratu ebazan, hasikera baten 30ean zarratutekoak ziran arren. Gainera, herritarrai mezu bat heldu arazo eutsen "osasun gomendioak zorrotz eta arduraz jarraitzeko" esanez, eta hurrengo egunetako kutsatu kopuruaren arabera, "neurri bereziak" hartu eikezala jakinarazoz.

Edadekoak bisitak murriztuta
Edadekoen zentroetan bisitak murriztu egin dabiz Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak eta Foru



Aldundiak. Bisitak persona bakar batekoak izan behar dira, gehienez ordubeteakoak eta egunean behin. Eta egoiliarren urtekerak "ahalik eta gehien mugatzea" gomendatu eben abuztuaren 18an. Holan, eta COVID-19aren egoera ikusita, abuztuaren 20an, Dimako Arratia Egoitzan, egoiliarrek kanpora ez urtetea ebatzi eben, "egoereak hobera egin arte". Bisitak jagokienean, barriz, ordura arteko moduan jarraitutea ebatzi eben: hau da, astean ordu erdiko bisita bi, beti be persona bera.

Eskolara bueltea

Abuztuaren 28an emon ebazan jakitera Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuak eskolara itzulerarako neurriak. Hezkuntza presentziala izango da eta, geletan ikasle ge-

hien daukiezan ikastetxeetarako 1.000 irakasle gehiago kontratetea aurreikusten dabela esan eban.

Hezkuntzak agindutakoaren arabera, eskoletan, ikasgeletara bueltea urri lehenengoaren 7an izango da, Institutuan, DBH1 eta DBH2koak be hilaren 7an hasi behar dira, baina hortik gorakoak hilaren 15ean. Lanbide Heziketan, hilaren 14tik aurrera hastekoak dira ziklo eta mailaren arabera.

Maskarearen erabilera derri-gorrezkoa izango da LH1etik aurrera, baita 1,5 metroko distantzia gordetzen dabenean be. Haur Hezkuntzan ez da derri-gorrezkoa izango, baina erabiltea gomendatzen dau Sailburuak.

Ikasgeletan positiboak agertzen diranerako jarraibideak be emon ebazan. Ikasleak ikastetxeetan dagozanean COVID-19aren sintomak agertu ezker, aparteko gela batera eroango dabiz eta familiak osasun zentroagaz ipini beharko dira hartu-emonetan. Umea bizikidetzat talde egonkorrekoak danean, kontaktu estutzat hartuko ditue taldeko persona guztiak eta berrogeialdian egon beharko dira. Bizikidetzat talde egonkor batekoak ez danean, ikastetxeko hartu-emon estuak identifikauko ditue.

BEDIA

Denpora nahasietarako kulturea

Erredakzinoa

Ziurbakotasun handiko sasoi honeetan be, kulturearen aldeko apustua egin gura izan dau Bediako Udalak eta 2020-2021 ikasturterako ikastaroen eskaintza publikau dau. Beti be, "osasun agintariak COVID-19agaitik sortutako larrialdiari buruz egiten dabiz gomendioak hartuko dira kontuan". Ondo bidean, izena urri lehenengoaren 7tik hilaren 18ra arte emon ahal izango da liburutegian, arrastiko ordutegian.

Ikastaroak *Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru dantzak, Koroa, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipopresiboa, Ingelesa: mintza praktika, Euskera ikasteko ikastaroa, Eskulanak, Gimnasia erritmikoa, Mugiment programea: korrika eta luzapenak, Mantenu soinketa, Adimen emozionala II eta Masaje geriatrikoa* dira.



LEMOA

Euskera ikastarorako izena emoteko epea zabalik

Erredakzinoa

Lemoako Euskara Zerbitzuak datorren ikasturtean, euskera ikasteko eskolak ipiniko ditu martxan. Euskera praktiketako Berbalagun be martxan dala, gogoratu arazo dau.

Lemoako Udalak antolatutako euskera eskolak urri lehenengotik bagilera arte izango dira. Izena hilaren 22ra arte emon daitezke udaletxean. Astean sei ordu izango dira, 210 ordu guztira, 76 euroko prezioan. Leku kopurua mugatua da, 35 persona gehienez eta ordutegia taldearen arabera izango da.

Berbalagun

Berbalagun proiektuan parte hartu eta euskeraz praktiketako be izena emon behar da udaletxean, baina ez dago leku kopururik ezta izen-emote eperik be. Bakotzak gura dauanean hasi daitezke norberaren ordutegira egokitutako talde baten eta ez da ezer ordaindu behar.

DIMA

Udazken morea Diman

Dimako Andraizea andren alkarteak feminismoaren kolorea emon gura deitso udagoienari eta urrietatik hasita eta abendurarte hamaika ekitalditako programea aurkeztu dau.

Erredakzioa

Urri lehenengoan, literatura arloko ekitaldi bi egongo dira: Bixenta Mogelen bitzita ezetuten Markinara bisitea hilaren 19an eta Kattalin Minerren eskutik, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* liburuaren gaineko irakurketa tailerra, 23an. Sei ipuinek osotuten dabe *Bihotz handiegia* liburua eta euretako luzeena da liburuari izena emoten deusana. Sei ipuinetako personajeak konpleju eta arruntak dira, beti arrotz sentiduten diranak.

Urri bigarrenean hiru zita daukie andrak Diman. Landa Inguruko Andren Nazinoarteko Egunean, urri bigarrenak 15,

Zuhaitza dokumentala ikusteko aukerea egongo da eta mahai-ingurua Iratxe Martinez eta Dimako andra nekazariakaz. Egun bi beranduago, zapatuz, Antzasti Euskaldunon Etxera bisitea egingo dabe. Zelangoak ziran barrutik baserri tradizionalak eta zelangoak uriko etxeak XIX. mendean, modernidadean, eta honeen loturea pentsamentu eta bizimoduagaz ikusiko dabe bertan. Hilaren 30 eta 31n, bariku eta zapatuan, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel idazleen berbaldiak daukaz programauta Diman egiteko. Feminismoa eta euskerearen inguruko ikastaro hau aprilean egitekoa zan bai-

na urri bigarrenera atzeratu zan COVID-19a dala-eta. Partaideak, besteak beste, hizkuntza eta generoaren prozesuak non kurutzatzen diran, ze ezaugarri partekatzen dituen eta batak bestetik zer ikasi leikien landuko dabe barikuan 18:00etatik 20:30era eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara.

Zemendiak andren kontrako indarkeriaren burrukea izango dau ardatz. Zemendiaren 6an, Ainara G. Goitiandiaren *Come-me la flor* liburuaren aurkezpena egingo dabe Diman. Liburua, 25 narrazio feministaz osotuta dago. Zemendiaren 21erako, *Autodefensa* tailerra programau dau Andraizeak. Andrankako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren bezperan, zemendiak 24, parkea atontzekoak dira andra dimoztarrak eta 27rako, *Panpina* antzezlan programau dabe. Erika Olaizola artisteak panpinaren unibersoa aztertzen dau antzezlan "abstraktu, probokatzaila, intimo, zirikatzaile, umoretsu eta ilun" honetan.

Abenduaren 19an, andran parkean zugatz morea ipiniko dabe. Ondoren, Iratxe Fresneda

eta Nora Alberdiren Simone de *sexua(z) Collage* film laburra eta Beauvoir-en gaineko *Bigarren* berbaldia antolatu dabez Diman.

Urte	Ekitaldia
19	IRTEERA Bixenta Mogelen historia ezetuten Markinara
23	IRAKURKETA TAIERRA Kattalin Minerregaz - "BIHOTZ HANDIEGIA" liburua
15	LANDA INGURUKO EMAKUMEAN NAZINOARTEKO EGUNE "Zuhaitza" dokumentala eta mahai ingurua Iratxe Martinez eta hainbo andra nekazariakaz
17	ANTZASTI EUSKALDUNON ETXERA bisita
30-31	JABEKUNTZA ESKOLA: Feminismoa eta nekazari
6	"COMEME LA FLOR" liburuaren aurkezpena
21	AUTODEFENTSA TAIERRA
24	ANDRAN PARKEAN ATONKETA - Parkeak eta rotondas
27	"PANPINA" antzezlan
19	Andran parkean ZUHAITZ MOREA FILMA eta HITZALDIA - Simone de Beauvoirren "BIGARREN SEXUA"

begitu

18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxean** lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

BIHOTZ GOROSPE

"Negarra aterateko modu bat da kantua sortzea"

Bere Youtube kanalean, Bihotz Gorospe izenekoan, musikaria, *Bihotz anpuluak*, berak sortutako kantak, dabil kaleratzen. Lehenengo bien hitzak, Dimako Rafa Ugaldereen *Hondar aleak* liburuko poema bi dira.

Bihotz Gorospe igorreztarra da baina Diman bizi da oin dala 9 urte inguru. Lanbidez irakaslea, ibilbide luze eta oparoa dauka musika munduan.



Erredakzinoa

Noz eta zelan hasi zinan musika munduan?

Musikari lotuta egon naz beti, aita musikaria izan da eta gure etxean musika beti egon da oso presente. Umetatik euki dot musika zaletasuna. Euskal Kantu Txapelketa batzuetan hartu neban parte umetan aitagaz eta gero nire ibilbide personala hasi neban. Uste dot 1992an edo 1993an izan zala, ez dakit zehatz. Saioa eta Bihotz deitzean zan gure proiektua, nire betiko laguna, Saioa Gonzalezegaz ipini nebana martxan. Bikotea ginan, abots bi eta gitarra bat.

Holan ibili ginan urte batzuk. Hasieran aitaren kantuk kantetan genduzan eta gero, geuk sortutakoak, Bizkaitik zehar. Gero Kamaran bai izeneko proiektuan sartu ginan. Folk talde bat zan, partaide gehienak Arratiakoak,

eta hor ibili ginan urte batzuk. Kontzertu asko egin genduzan, batez be Bizkaian baina Bizkaitik kanpo be bai, Espainara be urten ginan inoz eta maketa bat be grabau genduan. Bitartean, Saioa eta Bihotzek bere ibilbidea jarraitzen eban.

Kamaran bai desegin zanean, Saioak eta nik geure estiloa jorrateko gogoia geukan eta maketa bat grabau genduan. Uste dot izan zala 1998an urtean. Elkar disketxea momentu baten gugaz kontaktuan ipini zan interesauta egon zalako. Sasoi haretan triki bikoteen *boom*-a izan zan: Alaitz eta Maider, Maixa eta Itziar... Guk ez genduan jorratu gura esparru hori, gure estiloa poperoagoa zan, pop-rock estiloa. Urte batzuk beranduago desegin egin zan Saioa eta Bihotz bikotea.

Ha-ta guzti be, zuk ibilbide luzea egin dozu bakarrik, zein beste kantari batzuei la-

gunduten.

Bai, nire ibilbidea egin dot. Iparaldeko Kim Mafrundi taldeagaz egin nebazan kolaborazio batzuk eta gero urte batzuk geldirik egon nintzan. Beti euki dodaz urte batzuk oso potenteak eta gero beste batzuk egon nazala geldirik. Stand-by esaten dot nik.

Baina Elkar argitaletxea jarri zan nigaz kontaktuan Kupela taldean parte hartu neian. Kupela trikitalariak dira. Eureka bost bat diskotan hartu neban parte koruak egiten. Baita ETBrako kolaborazioetan be.

Ondoren ETBko Euskal kanturik onena programarako deitu eusten, 2005-2006 urteetan. Horrek asko ikasteko aukerea emon eustan, ze zan zuzenean emitiduten zan programa bat. Astelehentan, beharretik urtendakoan, Donostiara joaten nintzan erropea probetan, eta eguaztenetan, lanetik urtendakoan joaten nintzan

Donostiara programea zuzenean egitera. Hortik talde bat sortu zan eta holan ibili ginan Euskal Herri- tik zehar zuzeneko emonaldiak emoten eta euskal kantu ezagunenak interpretetan. Talde horretan Xabier San Sebastian, Jon Urdangarin, Juanpa Agirre Akelarreko abeslaria zana eta hainbeste musikari egon ziran. Eta hor ibili nintzan urte bat eta piku Euskal Herrian zehar hainbeste kontzertu egiten.

2006an Harrobi taldean egon nintzan, Dimako David Houstonek sortutako taldea. David Ibarra da bere izena, baina bere izen artistikoa David Houston da.

Urte bi beranduago, 2008an, ama izan nintzan eta barriro be, geldirik esan daigun, egon nintzan. Kolaborazio batzuk egiten nebazan ha-ta guzti be: Dimako herrian gauza batzuetan parte hartzean, kontzertu batzuetako koroak egiten, batez be. Ni beti

izan naz "korista" edo, ze asko gustetan jata koruak egitea.

Eta gero 2014an, hasi nintzan Mikel Inunziagagaz kantetan. Inun- egaz ipini nintzan harremanetan eta disko bitan hartu dot parte: *Danola* eta *Aingurak* diskoetan, hain zuzen be. Urte batzuetan zuzenekoak egiten ibili gara.

Eta oin nabil nire esperimentuak egiten.

Esperimentazio lana da beraz, Bihotz anpuluak?

Eta sorkuntza lana. Momentu honetan ez nago Inunegaz ezer egiten eta bat-batean pentsau neban zeozer nirea egiteko momentua zala. Ze azkenengo urteetan beti izan da baten batentzat kolaborazioak, baten bateri lagundu... Eta okurridu jatan Youtuben kanal bat zabaldu, gazteak egiten daben legez.

Kanal horretan hasieran ber- sinoak ipini nebazan. Batez be euskal kantuk, baina kanpokoak

be bai. Danak ez dira nire kanta kutunak. Batzuk bai eta beste batzuk ez. baina momentu konkretu baten zeozer transmitidu deusten kanta dira eta zeozerengaitik buruan bueltaka euki dodazanak. Bersinoa egin eta hogeitau baino gehiago ipini dodaz Youtubeko kanalean azkenengo hileetan.

Eta gero okurridu jatan ordua zala be bai, nire kajoian edo nire karpetan gordeta daukadazan neure kanta, neuk sortutakoak, argitaratuteko. Karpeta hori da Bihotz anpuluak. Hiz joko bat da, ze azkenean nire sorkuntza lan gehienak beti izan dira nire momentu txarretan sortutakoak. Negarra aterateko modu bat da kantua sortzea. Eta orduan Bihotz anpuluak, negar anpuluak eta ni Bihotz nazenez holan ipini neutsan izena.

Bideoak grabau eta editetako Jose Migel Atxaren laguntza izan dot. Atxa da betiko laguna, ETBn eta hainbat produktoratan behar egiten dauana. Esan neutsan "beitu Atxa, Youtuben nabil kanta batzuk eskegiten eta nire mobilagaz nabil grabetan. Zelan egin ahal dot?" Eta berak esan eustan "nik grabauko deusudaz". Eta holan ekin geuntsan, presa barik, ze kantu horreek urtailean grabau genduzan eta oin argitaratu dodaz. Artzubiko errotan grabau genduzan biak eta dira argitaratu dodazan lehenengoak.

Lehenengo bien hitzak, Dima Rafa Ugaldereen Hondar aleak liburuako poema bi dira.

Bai. Beste kanta asko be daukadaz letrak nireak ez diranak. Asko nireak dira eta beste batzuk beste lagun batenak, Iñaki Mendizabalena, esaterako.

Rafa Ugaldereen *Aleak* eta *Zuri heltzeko ahaleginetan* poemak irakurri nebazanean oso-oso identifikautu sentidu nintzan, konexino itzela egon zan eta orduan gitarra hartu eta segiduan musikea ipini neutsen.

Nik Rafa ezetuten dot herritik eta ipini nintzan beragaz kontaktuan. Eta baimena neukala gura nebana egiteko esan eustan.

Kanta grabau eta editatu zira-nean, entzun ebazan lehenengo personea bera izan zan eta Youtube-n eskegi nebazanean be esan neutsan "Rafa, zu zara lehenengo, zurea da behararen erdia-eta".

Kanta banan-banan zabiz argitaratzen, Bihotz anpuluak disko baten batzeako proiekturik badaukazu?

Diskoa ez, baina zuzenekoan egiteko formatuan ipintea bai. Beti pentsau dot egunen baten hartu beharko dodazala bi edo hiru musikari eta nire kanta, beste formato baten, zuzenean emateko moduan ipini behar dodazala. Baina momentuz ez dot topetan momentua. Banabil bueltaka eta gainera badaukadaz hainbat lagun musikari... Eta badaikit esan ezker, "beitu, topauko dodaz hamar bolo, bazatozie nigaz?" baiezkoa emongo deustela. Baina ez dot topetan momentua. Dana dala, oingo egoeran hamar bolo topetea ez da erreza izango.

Diskoa ez. Gaur egun disko bat grabatea ez da bape erraza: dirua behar da, jente pilo... eta niretzat ez da bape be erraza: beharrean nabil eta ama naz. Baina sorkuntza lana argitaratutea Youtuben oso erraza da. Eta okurridu jatan nire karpetan dagozan kanta argitaratutea. Gura dot segidu hori egiten, Youtuben ipinten nire lanak. Azken finean, nik gura dodana da nire sorkuntza lana erakutsi eta jenteari gustetan bajako entzun dagiala. Musikea aterateko grina hori edo gogo hori asetuten dot holan.

Sormen aldetik momentu potentean zagoz, orduan.

Bai. Egon naz hilabete batzuetan nahikotxo sortzean, nire kuartuan sartuta. Egiten dodana da kuartuan sartu, zarratu eta esaten deusat umeari: "ez etorri ezertarako be ez". Azkenengo hilabeteetan nahiko topera ibili naz. Eta gainera konfinamentuak be, apur bat erraztu egin deusta hori. Ordu asko egin doguz etxean eta etxean egokieran ba, gitarra hartu eta negar apur bat egin edo sortu egin dot.


"Rafa Ugaldereen *Aleak* eta *Zuri heltzeko ahaleginetan* poemak irakurri nebazanean oso-oso identifikautu sentidu nintzan, konexino itzela egon zan eta orduan gitarra hartu eta segiduan musikea ipini neutsen"



	JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea	
	Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre	
	Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza	
	Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre	

ONLINE APUSTUAK

DATU, HAUSNARKETA ETA AHOLKUAK



DATU DEIGARRIAK

- 2017-an %49ko igoera izan zuten eta hortik aurrera etengabe igo dira. (Estatu Espainiar mailan)
- 2018-an 28.386.968€ gastatu ziren online apustuetan. (Jokoaren Euskal behatokia)
- 24 ordutan zehar eta edozein ordenagailu edo mugikorretik egin daiteke.
- Euskal Herrian 4200 gazte inguruk arazo larria izan dezakete jokuarekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren esanetan.
- Bideo-jokoan inguruko apustuak, gazteen foku garrantzitsu bat izaten ari dira.

HAUSNARKETA ETA AHOLKUAK

- Nork irabazten du gehiago? Apustu empresak edo zuk? Benetan baliozko zerbait irabazten ari zara? Zer galdu dezakezu?
- Apustuen irabazi eta galera sistemak menpekotasuna sor dezake. Kontrolpean duzula pentsatzean oker egon zaitezke.
- Gero eta iragarki gehiago daude online apustuak publizitatzen, eta gainera pertsona famatuak agertzen dira bertan, bereziki gazteek idolo moduan dauzkatenak.
- Zerbait irabaztean sentitzen dugun asebetetzeak perspektiba eta kontrola galtzera eraman gaitzake. Erantzuna zure esku ez dagoenean galtzeko aukera gehiegi daukazu eta ez dirua soilik.
- Nabaritzen baduzu, apustu egiteak zure bizitzako alderdi desberdinetan (ikasketak, harremanak, etab) era negatiboan eragiten duela, laguntza eskatu.



LAGUNTZA BEHAR DUZU?

Gurasoekin hitz egin eta Arratiako udalen mankomunitateko prebentzio teknikariek harremanetan jarri. Hona hemen datuak:

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA
ALMUDENA ETXEBARRIA
ELEXALDE 49 (IGORRE)
PREBENTZIOA.ARRATIA@BIZKAIA.ORG
TELEFONOAK: 688643305 / 946311717



PELOTEA

Plazandreak torneoko finaleraino heldu ziran Amaia Alday dimoztarra eta bere taldea

Zazpi astetako txapelketea lehiatu ostean, Reyes Azkoitiaren taldeak irabazi eban Plazandreak udako torneoko finala; hau da, Olatz Arrizabalagak, Irantzu Etxebestek eta Nora Mendizabalek osotuten daberen taldeak. Amaia Alday dimoztarra, Iera Agirre eta Arrate Bergara, Mikel Inunziagaren taldea, izan eban kontra finalean. Abuztuaren 27an jokatu zan Bilboko Bizkaia pelotalekuan publikoaren aurrean. Olatz Arrizabalagak erakustaldia egin eban finalean eta bere taldeak jantzi eban txapela.



Bizkaia frontoia.

Argazkia: Emakume Master Cup.

Erredakzioa

Finaleko lehenengo partiduan, Amaia Alday eta Olatz Arrizabalaga neurtu ziran. Gernikarra erraz nagusitu jakon dimoztarrari, 5-12. Hurrengo partidua, binakakoa, Iera Agirrek eta Arrate Bergarak irabazi eban eta holan, hirugarren partidua jokatu behar zanean, bardinduta egozan talde biak. Txapelketea ebatziko eban Olatz Arrizabalagaren kontrako partidua Iera Agirrek jokatu eban. Arrizabalagaren nagusitasunaren aurrean ezin izan eban ezer egin, eta 1-12 galdu eban.

Finalerdia

Finalerako pasea abuztuaren 20an lortu eban dimoztarrak eta bere taldeak, Leire Garai, Ainhoa Ruiz

de Infante eta Maite Ruiz de Larramendiri irabazi ostean. Lehenengo partidua, Alday irabazi eutsan Garairi 12-8. Binakakoa be erraz nagusitu jakon Mikel Inunziagak zuzendutako taldea Naroa Eleizalde zuzentzen dauanari; izan be, 12-5 irabazi eban Iera Agirre eta Arrate Bergarak, Ainhoa Ruiz de Infante eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra. Atzen partidua, Arrate Bergarak eta Ainhoa Ruiz de Infante jokatu eban. Emaizta 11-12 izan zan.

Hurrengo torneo lau t'erdikoa Plazandreak torneoaren antolatzailerak, Emakume Master Cup lau t'erdikoa antolatuteko asmoa daukiela jakinarazi dabe eta izen emotea zabalik dagoala parte hartu gura daberen pelotari guztientzat.

MENDIA

Jokin Zabala: "Mendiaz gozatu eta bidez disfrutetako momentua da oin"

Jokin Zabala Zamalloa mendi korrikalari bediazarrak gogor entrenetan jarraituten dau, aurten mendi lasterketa gitxi egingo diran arren. Kolazino Mendi Eguneko zuzendaritzakoa eta Gorbeia Suzien lasterketako antolatzailea be bada. Ikasketai jagokienez, Lehen Hezkuntzan, eta Ariketa Fisiko eta Kirolen Zientzian graduatua da.

Erredakzioa

Txikitan futbolearen be ibili zinan baina mendi lasterketak dozuz gustukoan. Noz eta zelan konturatu zinan zurea mendian galapan egitea zala?

Mendian txikitatik ibili naz aitagaz eta beti tontorrera lehena heltzeako korrika amaitzen neban. Ha-ta guzti be, galapan egiteko gogo horren "errua" Igor Lopezek dauka. Igorrek Brinean taldeagaz batera antolatzan eban Aramotz Mendi Lasterketan, bolondres ibili izan nintzan urte bitan, eta bertan Imanol Goñi, Aitor Osa edo Zigor Iturrieta lango lasterketariak ikusteak, niri nozoz holangoak egiteko gogo biztu eustan. Gerora, talde bardinak, Briñeanez, Anbotoko Kilometro Bertikala antolatuta eban eta Arrazolako maldetatik gora Marco de Gasperi, Luis Alberto Hernando eta mundu mailako galapariak ikusteak, lasterketa honeetaz maitemintzea ekarri eustan, korrikalari guztiak postua edozein zala izanik, irribarre bategaz amaitzen ebelako.

2012an egin neban nire lehenengo lasterketa Lakuntza-Aralaren eta 2. postuan sailkatu nintzan Junior mailan, baina, nire denporaldiak ez eban asko iraun, lesino batek urte biz lasterketatik kanpo itxi ninduan-eta. 2015. eta 2016. urteetan, Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Kopan eta txapelketan bigarren gelditu nintzan 23 urte azpiko mailan eta 10. postua orokorrean. 2016. urtean, Espainiako Kilometro Bertikalen Kopan bigarren postua lortu neban Promesa mailan (23 urte azpiko mailan). Hurrengo urtea barriz, gogorra izan zan beste lesino bat eta ikasketak zirala eta. 2019an Kantabriako Kilometro Bertikalen Kopan 2. sailkatu nintzan maila absolutuan eta "top 10ean" sartu nintzan Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Txapelketan. Aurten, 2020an, Espainiako Kilometro Bertikalen Kopa lehitzeko asmoa neukan baina egungo egoera ikusita, mendiaz gozatu eta bidez disfrutetako momentua dala uste dot.

Zein izan zan egin zenduan lehenengo lasterketa? Eta zuretzat inportanteena izan dana? Zergaitik?

Nire lehen lasterketa, izatez, Lakuntza-Aralar izan bazan be,

nik lehen lasterketatat Azpeitian ospatzen zan Zuzenien Kilometro Bertikala daukat. Lasterketa honetan kilometro bertikalez eta honeetan sortzean zan giroaz maiteminduta geratu nintzan eta.

Kutunena barriz, Anbotoko Kilometro Bertikala da, Arrazolan ospatzen dan eta 3,8km-tan 1.100m+ dituan lasterketea. Urtero joan beharreko zitea da, nire entrenamentu lekua eta barruan dodana aterateko leku berezia. Anboton eredu izan dodazan lasterkariak ikusi dodaz, batez be, Iñigo Lariz, Imanol Goñi edota Oier Ariznabarreta. Kirolari honeen denporak lortzea amestu izan dot beti. Anbotok ez dakit zergaitik baina zerbaist berezia dauka, Mari izango da akaso...

Kolazino Mendi Eguneko sortzaileetako bat zara. Azaldu apur bat zelan sortu zan hori eta zein izan dan egindako ibilbidea eta balorazioa.

Mendi lasterketan galapan ibilteaz gainera, Kolazino Mendi Eguneko zuzendaritza taldearen partaide be banaz bere sorreratik. Izan be, batetik, Bedia mapan ipini eta bestetik, herriak dituan mendi

aukerak erakutsi gura nebazan. Oso pozik eta harro nago herriak eta partaideak izan daben erantzunagaz eta baita lasterketeak hartu dauan mailagaz be. Pena handia izan da 2020an ospatu ezin izana egindako lan guztia eta gero. Aukera hau aprobetxau gura dot izena emon eben partaide eta babesle guztiak esker ona adierazoteko. Ea posible dan 2021ean egun eder honetaz gozatzea!

Gorbeia Suzieneko lantaldean be laguntzen nabil azken urteotan; Euskal Herriko lasterketa ederrenetakoa da.

Aurten bertan behera geratu zan KME, COVID-19a dala-eta hartutako neurriakaitik. Zer suposatu dau horrek?

Aurten, lasterketa egin behar zan asteen bertan ezarri zan alarma egoera eta behartuta egon ginan bertan-behera ixtera. Ondorioz, ordainketa ugari geunkazan egiteko, eta guztiok kalterik txikiena izateko asmoz, hartu ziran hartu beharreko ebatziak. Eskerrak baino ezin deutset emon bolondres, babesle eta Bediako Udalarari, eskainitako laguntzeagaitik.

Argazkia: Jabi Artaraz.



Mendi lasterketak Euskal Herrian, eta Arratian be bai, sano arrakastatsuak izan dira atzen urte honeetan eta zale asko ditue.

Arratiatik harago, esango neuke Euskal Herri mailan, mendizale-tasun handia izan dala beti. Ha-ta guzti be, gizarteak aurrera egin ahala, hau ulertzeko modua aldatur doala uste dot. Izan be, mendi lasterketak daukien boom hau, momentu baten gelditu egingo dala pentsetan dot. Pandemiaren ondoren jenteak lasterketak gogotsu hartuko dituala uste dot, eta bakotzak bere neurriko lasterketak egitera bultzatuko neuke jentea. Gaur egun asko ikusten dira mendi lasterketan hasi eta lehen urtean maratoi bat egiten daben lasterkariak, edo-eta urte bira ultretan ibiltzen diranak. Danak prozesu bat dauka eta mendiak be egokitze bat behar dau lasterketarien aldetik. Azken urteotan badirudi 42 kilometroko lasterketak egiten ez badozuz, ez daukala ezerk balio.

Lasterketai jagokienez, zeintzuk dira zure proiektuak? Entrenetan zabiz?

Bizi dogun egoera kontuan hartuta, aurten lasterketa gitxi egingo dirala uste dot. Ha-ta guzti be, gogor entrenau eta gorputza gehiago ezetuteko momentua dala deritxat. Kirol guztietan zi, konstantzia da hobetuteko sekretuetako bat, eta egoera honek, aukera barriak zabalitzen deuskuz hobetuteko. Momentu honetan, lasterketak egongo balira lez entrenetan jarraitzen dot, eta badodaz erronka bi aurtengo urtea amaitu baino lehen egin gurako neukezanak: Anbotoko bertikalean nire denporarik onena hobetutea eta urte asko buruan daukadan proiektu bat. Azken hau Gorbeian izango da eta proiektu hau aurrera eroateko unerik onena dala uste dot. Oin arte egin ez dan erronka bat dala pentsetan dot eta hori prestatzen nago buru belarri.

Bediako Gazte Teknikaria be bazara, ezta? Bedian gazte izateak, ze aukera eta ze arazo dakar? Herrian bertan aisialdia emoteko aukerarik badaukie gazteak? Zeintzuk dira Udalak eskaintzen deuten zerbitzuak?

Bedian gazteak lanean ibili izan naz azken urteotan. Bedian gazteak aukerak daukiezala esan neike; izan be, Gaztetxokoa eta herriko instalazioak daukiez eskura. Horrezaz gainera, 15erik behin ekintzak antolatuten dira Gaztetxokoa izena emon dabenentzat. Udan be egoten dira gazteentzako udalekuak eta Uda Gaztea, eta normalean, gazte asko animetan dira ekintza honeetara. Halanda be, Lemoan, Igorren eta beste herri batzuetan ikasteak asko mobidu arazoten dauz gazteak beste herri batzuetara, lagunakaz egoteko. Baina Bedian be, aisiaz gozateko lekua egon badago.

PELOTEA

Profesionalak abuztu eskasa emaitzen aldetik



Danel Elezkano. Argazkia: Aspe.

Erredakzioa

Aforo mugatuagaz eta ezarritako beste osasun neurriakaz baina eskupelota profesionaleko partidua izan dira abuztu honetan eta Arratiako pelotariak, Dimako Danel Elezkanok eta Igorreko Oier Etxebarriak hainbat partidu jokatu ditue, emaitza txarrakaz.

Danel Elezkanok lau partidu jokatu ditu eta laurak galdu. Azkena, abuztuaren 29an izan zan Tafallan. Elezkano eta Aretxabaleta, Artola eta Rezustaren kontra neurtu ziran 19-22 galduz. Aurreko partidua Elgoibarran jokatu eban abuztuaren 24an, Mariezkurrena II.agaz, Ezkurdia eta Arangurenen kontra eta 22-15 galdu eben. Abuztuaren 15eko partidua be, galdu egin eban Elezkano-Mariezkurrena bikoteak Altuna III.a eta Imazen kontra Lekeition, 17-22 emaitzagaz eta bezperan be, Mallabian, 12-22 galdu eben Jaka eta Albisuren kontra.

Oier Etxebarriak Elordigaz partidu bakarra jokatu dau denpora tarte horretan. Lekeition izan zan, abuztuaren 15ean. Bikotea, Bakaikoa eta Urretabizkairen kontra neurtu zan, 18-22 galduz.

Hurrengo

Hurrengo partidua urri lehenengoaren 5ean jokatuko dabe Arratiako pelotari biak Lezaman. Igorretarrak, Dariogaz jokatuko dau Bakaikoa eta Urretabizkairen kontra. Danel Elezkano barriz, Aretxabaletagaz batera, Olaizola II.a eta Zabaletaren kontra neur-tuko da.

ALKARRIZKETEAK

Eva Perez-Pons: "Jendarteari kritika egiteko da liburuaren titulua"

Erredakzinoa

Eva Perez-Pons Andrade (Lemoa, 1996) kaleratu barri dau *Zaharkitze programatua* bere lehen poema liburua. Argitaratzea, Blas de Otero-Bilbo Uri Nazinoarteko Poesia Lehiaketako sariaren parte da. Izan be, 2019an, lemoztarrak irabazi eban saria. Urte bi lehenago be, Arratiara ekarri eban sari garrantzitsu hori Rafa Ugalde Dimakoak *Hondar aleak* liburuagaz.

Eva Perez-Ponsek Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza gradua egin ostean, Ikasketa Feminista eta Generokoen Masterra egiten dabil eta

Mugarik Gabe GKEen beharrean.

Bilboko Blas de Otero Poesia Lehiaketako XII. edizinoako saria irabazi dozu. Pozik hartuko zenuen, ezta?

Blas de Otero Poesia Lehiaketeak modalidade bi daukaz, euskerazkoa eta gaztelaniazkoa. Atzenengo edizinoan, euskeraz 15 bat lan aurkeztu ziran. Epaimahaian Miren Agur Meabe egon zan eta niri asko gustetan jata bere poesia. Ilusino berezia egin eustan irabaztea bera epaimahaian egonda.

Gazteleran egoten dira askoz lan gehiago. Uste dot bostehundik gora. Saria 5.500 euro eta liburua argitaratzea da. Hori Elkarrek egi-

ten dau.

Zure poema liburuaren izenburua *Zaharkitze programatua* da. Zergaitik izenburu hori?

Ingeniaritzan edo arlo teknologikoan dagoan kontzeptu bat da. Gailu elektronikoak programatzean, ekoizleak badaki gailu horrek noz arte izango dauan bitzita erabilgarria. Handik aurrera, gailuak ez ditu izango hasikerako propietate guztiak edo ezin izango da erabili. Titulua, jendarteari kritika egiteko zan. Izan be, bizitzan eskema zurrun batzuk dagoz: pentsatzeko era bat, lan egiteko era bat... Eta ez badozu holan egiten, atzean geratzen zara eta



sistematikoki ez zara behar bezain produktibo. Atzenean horrek eragina dauka osasun mentalean, eta gorputza da horren lehenengo adierazlea.

Nik uste dot liburua idatzi nebala apur bat egoera horretan gorputzak zelan errakzionetan dauan adierazoteko.

Zein da liburuaren gai nagusia eta zelan dago egituratuta?

Hainbat zati dagoz eta zati bakoitzean gai bat landuten da, batez be. Esango neuke zentralidade gehien daukana zaurgarritasuna dala. Dana dala, idazterakoan ez neban pentsau "zaurgarritasunaren gainean idatziko dot", baina gero, irakurri eta antolatzerakoan, ikusi neban hori dala gaia era nabarmenago batean. Liburuak be badauka aldarrikapenerako tartetxo bat: patriarkaduen kontrako diskursoa, kapitalismoaren kontrako eta derrigorrezko heterosexualidadearen kontrako. Desirari be eskaini neutsan atal bat.

Poesian jarraitu ala beste genero batzuk landuteko asmoa daukazu? Nortzuk dira zure erreferenteak eta gehien gustetan jatzuzan idazleak?

Nire gehien gustetan jatana irakurtzeko eta idazteko poesia da. Jarraitzen dot idazten baina momentuz argitaratzeko idea barrik.

Errferenteai jagokienean, poesian esango neuke niretzat Pizarnik-ek suposatu ebala nigan inflexino puntu bat. Gero be, lehen esan dodan moduan, Miren Agur Meabe euskal literaturan. Monique Wittig be asko gustetan jata, ez da poesia baina nahiko modu poetikoan idazten dau. Adrienne Rich be piloa gustetan jata.

Zure lanean feminismoak daukan lekua ezin da aitatu barik itxi. Baina ez zeure lanean bakarrik, baita zeure bizitza pribadu-politikoan be, militantzia feministeagaz.

Nik neure burua bolleratzat daukat. Hau da, feminista nazalako naz bollera. Hautu politiko bat da nire kasuan. Ez da zeozer esentziala edo biologikoa, aukera bat baino, feminismoaren korrante

horregaz identifiketan nazalako. Akaso feminista izango ez banintz, ez nintzateke bollera izango.

Lemoako Zaplast talde feministan jarraitzen dot baina koronabirusagaz dago apur bat... Bueno ez dago martxan. Baina uste dot itxi egingo deusadala talde horretan militatzeari ze Zeberiora joango naz biziten eta azkenean leku baten egon eta beste baten militau apur bat gatxa da.

Oin gehiago nago Bilboko Sare Lesbianistan, Euskal Herriko Jarduari Feministetan kontaktu handiagoa izan neban eurekaz eta. **Ikasketak amaitutakoan zein arlotan egin gura dozu behar?**

Ez dakit. Oin nabil idazkari Mugarik Gabeko ingeniaritzan. Ingeniaritzeagaz erlazino badauka, baina bulego beharra da gehiago teknologikoa baino. Orduan, ez dakit. Gustauko litxakit energia barriztagarrien ikuspuntu kritikoa daukan proiekturen baten egitea behar, baina ez enpresa baten birtartez; edo Hezkuntzan ikuspuntu feministea txertatzea. Ze egia da oin apurka-apurka sartzean dabilzela baina nire ustez, ikuspegi hori ez da oso kritikoa.

Oporretako Argazki LEHIAKETEAK

1. Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
2. Argazkiak 2020ko oporretan egindakoak izan behar dira.
3. Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
4. begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
5. 2020ko urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok.
6. Epaimahaia BEGITU Aldizkariko erredakzino taldeak osotuko dau.
7. Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenegun argitaratuko da BEGITUan.
8. Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaia egoki jo ezker.
9. Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



begitu

MEMORIA HISTORIKOA

Memoria Historikoa berreskuratzeko lanen bilakaerea jasoten dauan kronografia argitaratu dau Udalak Lemoan

1937ko Lemoatxeko defentsakonplejua berreskuratzeko herrialde askotako gazteentzako Auzolandegiak eta beste arkeologia kanpainak antolatu dira bertan. Aurten, COVID-19 dala-eta, ezin izan da holangorik egin, baina Udalak memoria historikoa berreskuratzeko egindako ibilbidearen barri emoten dauan kronografia didaktiko bat argitaratu dau.

Bertan, 2013tik 2019ra arte Memoria Historikoaren inguruan, Lemoan egin diran ekimenak jasoten dira.



Erredakzioa

Atzen 9 urteotan, Lemoako Udalak "gogor egin dau lan 1936tik 1977ra bitarteko udalerriko memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko burrukea berreskuratu eta tokiko ikerketea sustatzeko. Are gehiago, egin diran ekintza guztien sustatzaile nagusietako bat izan da, baita horretan aurrendari be. Urte horretan guztietan etenbako bilakaerea ikusi dogu eta, atzenez, lan horrek memoria historikoa gizarteratzeko eta gizarte-barrikuntzako ekintzak antolatzeko be balio izan dau, kultura ondarea babesteko baliagarria izateaz gainera", dino lanaren aurkezpenak.

Auzolandegiak eta bloga

2013an, Memoria Historikoaren

Herri Batzordea bultzatu eban Udalak. Helburua, Gerra Zibilak eta gerraostearen memoria kolektiboa eta historikoa berreskuratzeko zan. Ekimen honek blog bat sortu eta auzolandegiak abiatu ziran.

Nazinoarteko landa lanak; hau da, Auzolandegiak, uda guztietan antolatu ziran 2013tik 2019ra arte, Lemoatxeko aztarnategia ezetuten emoteko. Eta aztarnategia mantentzen eta berreskuratzeko egindako komunitate lana, azpimarratzekoa da oingo udan ateratako argitalpenaren arabera.

Lemoatxeko defentsakonplejua berreskuratzeko eta eraikuntza elementu gehiago erregistratzeko, kanpaina arkeologikoak ipini ziran martxan, 2018an. Honek, jauzi kualitatiboa ekarri eban aztarnategia ondare moduan aitortu eta ber-

tan ikertzeari jagokonean.

Ondarea berreskuratzeko batera, gazteak honen garrantziaz jabetzeko, 2016an, Elkartrukea programearen barruan, Memoria Historikoaren baloretan oinarritutako sensibilizazio ekintzak egin ziran gazteak. Urte haretan, gazteak Alemaniarra joan ziran nazismo sasoiko giza eskubideen urraketak eta gertakari traumatikoak eta geroago, demokrazia sasoian ezarri ziran politika publikoak ezetuteko. Proiektuan izandako esperientzia oinarrituta, *Lemoa. Hauxe da gure kantua* diskoa, bideoklip bi eta *Memorian gordeak* izeneko dokumentala be egin ebezan.

Herritarren kultura ondarea

Egindako aurkikuntzen eta jasotako informazioaren barri herritarrei emoteko, hainbat jardunaldi, proiektu, liburu, erakusketa, errekreazio historiko eta ekitaldi publiko egin dira. Sensibilizazio lanak be ez dau etenik izan urte honeetan eta frankismoaren biktimai omenaldiak egin, desobiratzeak eta Lemoako bonbardeaketaren 80. urteurrenean ekitaldia egin eban herrian Udalak eta alkarteak.

Gainera, 2018an abiatutako kanpaina arkeologikoak, jauzi kualitatiboa egin eban Lemoatxeko defentsakonplejuaren kultura ondarearen berreskuratze eta kudeaketari jagokie-n. Izan be, gaur arte, bost hilobi berreskuratu eta aztertu egin dira, tokiko agintarien eta alkartearen laguntzeagaz. Holan, Hilario Reguero Blancoren gorpua identifikatu ahal izan zan, desobiratzearen berreskuratutako identifikazio plaka bateri esker.

Monografia eta ibilbidea

2018an, egindako ikerketea jasoten dauan monografia argitaratu zan *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena* liburua, hain zuzen be. Hurrengo urtean, 2019an, Lemoatx 1937 mendiko ibilbide labur zirkularra inauguratu zan. Ibilbidean, han izandako burrukearen barri emon eta interpretetan lagunduten daben seinale eta panelak dagoz.

"Egiak libreago egiten gaitu" eretxita, ikertzen eta aurkitutakoa herritarrei zabaltzen jarraitutako asmoa agertu dau Udalak.

EUSKEREA

Atzerriko unibersidadeetan euskera irakaslea izateko ikastaroan matrikulea egiteko epea zabalik dago

Erredakzioa

Ettxepare Euskal Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, atzerriko unibersidade eta goi mailako zentroetan euskera erakutsi gura dabenentzako ikastaroa prestatu dabe. Urri bigarrenaren 2an hasiko

da eta eskolak Gasteizen izango dira. Matrikulea egiteko epea urri lehenengoaren 18ra arte da.

Ikastaroa zemendiaren 28ra arte luzatuko da, 56 ordu, eta hainbat gai landuko dira; tartean, hizkuntzea, didaktika, metodologia eta kultura.

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Gaiher 666 58 20 06
Pozuetako poligonoa, 10 LEMOA • beerandaria@gmail.com

Kili-Kili
Amopu eta Puztutak
Lehendakari Agirre 10 - IGOERRE (Bilbao)
Tel: 94 673 63 81

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibatua
Begiak tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGOERRE (Bilbao)
Tel: 94 657 70 03 • olaetxeoptika@hotmail.es

begitu

Publizitatea:
649 979 115

✉ begitu@topagunea.com

🌐 www.begitu.org

AGENDA

URRI LEHENENGOAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

EUSKARA
Ikasi eta erabili

Euskara eskolak
Izen-ematea: udaletxea
Ordutegia: taldearen arabera (astean 6 ordu, gutxira 210 ordu)
Prezioa: 76 €
Egutegia: irailetik ekainera
Leku kop.: 35 pertsona
Izen-emate epea: irailak 1-22

Berbalagun
Izen-ematea: udaletxean
Ordutegia: bakoitzaren ordutegira egokitutako taldeak
Prezioa: doan
Ez dago leku kopururik ezta izen-emate epeirik ere

LEMOA

Hilaren 22ra arte, Udaleko Euskera

Zerbitzuak antolatutako euskera klaseetarako izen ematea udaletxean. Sei ordu astean, urri lehenengotik bagilera.

ZEANURI

2009 edo 2010ean jaiotako umeak Zeaniko Alebin Futbol 7 taldean izena emoteko aukerea, 688 654 641 telefonora deituta.

ZEBERIO

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezkez udala. zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotutako Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ez panoramikoak.

URRI LEHENENGOAK 2
DIMA

12:00etan, mezea Obako ermitan.

URRI LEHENENGOAK 3
BEDIA

16:30etik 19:30era, astelehenetik

barikura, 2020-2021 ikasturtean liburutegia eta ludotekea zabalik (Oh.: COVID-19aren larrialdiaren inguruko gomendioak hartuko dira kontuan).

URRI LEHENENGOAK 7
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik liburutegian. Ikastaroak: *Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Korru dantzak, Koroa, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipopresiboa, Ingelesa: mintza praktika*, Euskera ikasteko ikastaroa, *Eskulanak, Gimnasia erritmikoa, Mugiment programea: korrika eta luzapenak, Mantenu soinketa, Adimen emozionala II eta Masaje geriatrikoa.*

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte Umeen Irakurle Klubean izen emotea liburutegian. 8 eta 12 urte bitartekoentzat, Julen Gabiriaren eskutik.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, urri bigarrenaren 3an egitekoa

dan Vivanco Bodegara urtekerarako izen emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, urri bigarrenaren 24an egitekoa dan Getariara urtekerarako izen emotea (Cristobal Balenciaga museora eta Elkano txakolindegira).

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, Euskaraldian parte hartzeako izen emotea liburutegian. Bediako entidadeak.

* (Oh.: COVID-19aren larrialdiaren inguruko gomendioak hartuko dira kontuan guztietan).

URRI LEHENENGOAK 12
ZEBERIO

10:30ean, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Zeberioko altxorrak: Ermitabarri ibilaldia.

URRI LEHENENGOAK 13
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta,

mendi ibilbidea: Saldropo-Arralde-Atxuri-Saldropo. Izena emon gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus edo 94 673 92 79 telefonoan.

EKINTZAK GORBEIA ACTIVIDADES

URRIAREN OSOAN ZEHAR / DURANTE TODO EL OTONO
Bostaldunak kontutan. Dabilen garaitan gurekin elkarrekin arazatu diru, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu. Gurekin deialdean zehar, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu. Gurekin deialdean zehar, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu.

IRAILA / SEPTIEMBRE
Igandea 10:30an
Mendi ibilaldia: Saldropo-Arralde-Atxuri-Saldropo. Gurekin deialdean zehar, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu.

Larunbata 10:30an
Mendi ibilaldia: Saldropo-Arralde-Atxuri-Saldropo. Gurekin deialdean zehar, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu.

Larunbata 10:30an
Mendi ibilaldia: Saldropo-Arralde-Atxuri-Saldropo. Gurekin deialdean zehar, Gurekin Parke Naturalak hainbat ekintza antolatzen ditu. Informazio gehiago bilatu izateko, gurekin kontaktatu.

begitu
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

www.begitu.org

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzian, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizatu egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritat hartuz. Hartu-emonetarako: narrea_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 BEGITUKO kamiseta bana.

Inma Valiente (Zeanuri)
Aritz Arrizabalaga (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
@-IG
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO



Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutejitetxe@hotmail.com

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

GURE HELBURUA
EZ JAKELA EZER FALTA
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores



EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA - tel. 94 631 31 30
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupezioa

TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



AEKn, IRAKASLE BATEK
BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.



EUSKARA - IKASTAROAK



Zorion Utegarriaren Argazkiak, AEK-ko irudizkoak.

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak:
A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak.

Ellexalde 10, Igorre
94 631 56 57 / 607 632 916 - arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

LEHOA
940 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
940 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



BANATZAILEA

HIKOKI